

SANTA AGATE BEZPERAN kantua

Arrats on, jende onak, arrats on !
Agate bezpera da guretzat ohikoa...
Etxeko guziei ta lagunei,
lehenik gure agurra doa !
Kantatuz, kantatuz,
atez ate gabiltza taldean airoski...
Etxeko maiteak,
nahi dugu, bai, bizi zaitezten lasaiki !

Makilak, joz eta joz, ozenki
baztertu dezagun ta suntsitu, negu beltza...
Kartsuki galdetuz jin dakigun
betiko aldaketaren poza !
Kantatuz, kantatuz,
atez ate gabiltza taldean airoski...
Euskaraz, euskaraz,
nahi dugu, bai, bizi euskaraz osoki !

Gaur egun, elkarrekin, leialki
Agate martiri ta saindua ohoratuz
Laguntza eskatzen dizuegu
apalki zuen etxean sartuz...
Kantatuz, kantatuz,
atez ate gabiltza taldean airoski...
Euroak, tragoak,
musu finak, bai, nahi ditugu ausarki !

Milesker, jende onak, milesker
Emitza honekin ta bestekin, urte guziz
Atsegin eginen baidiegu
beharra duten batzuei utziz !
Kantatuz, kantatuz,
atez ate gabiltza taldean airoski...
Agate, Agate,
Miarritzen, bai, ospa dezagun handizki!